

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 727/2023 Erabakia, azaroaren 14koa. Onespena ematea Sobrongo zundaketako hornidura hodia berritzeko proiektua eguneratzeko proiektua jendaurrean jartzeko informazio aldian aurkeztutako alegazioen erantzunari, haren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari, okupaziorako beharrari eta hori premiaz egiteari**

Foru Gobernu Kontseiluak, 2023ko azaroaren 14an egindako bilkuran, 727/2023 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektua eguneratzeko proiektua” jendaurrean jartzeko aldian aurkeztutako alegazioen erantzuna Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra deklaratzeko. Presako prozedura. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 11ko 431/2023 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen “Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektua”, eta hasierako onespena eman zitzaion proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideak banan-banan eta modu zehaztuan jasotzen dituen zerrendari, eta hura jendaurrean jarri zen.

Proiektua jendaurrean egon den aldian, Iberdrola Generación, SAU merkataritza enpresak alegazio idazki bat aurkeztu zuen. Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak horren gaineko txostena egin du, eta Natura Ingurunearen Zuzendaritzak onetsi du, eta bere egin du Gobernu Kontseilu honek. Hura da erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileari igorriko zaio, aurkeztutako alegazioa baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Alegazioei entzuna eman ondoren, eta behin betiko onetsi behar da proiektu horren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda. Zerrenda hori egiteko kontuan hartu dira Amurrioko Jabetza Erregistroak egindako jabari eta karga ziurtagiriak, ondasun eta eskubideen hasierako zerrendaren berrikuspena eta 1/000, 2/000, 4/000, 6/000, 7/000, 8/000, 10/000 eta 11/000 finen benetako aprobetxamenduak.

Ondasun eta eskubideen desjabetzea 23.921,38 eurotan balioetsi du Desjabetze Atalak.

Bestalde, desjabetze espedientea abiarazteko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra deklaratu behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Abenduaren 23ko 3376/1971 Dekretuaren artikulua bakarrean xedatzen da ezen presakotzat joko direla herriak hornitzeko erabiliko diren urak edateko ur bihurtzeko obrak, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua onorioetarako. Hori dela eta, ulertzen da proiektu honek dakarren jardunak berekin dakarrela okupatzeko premia, eta desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen xedatutako presako prozeduraren bidez izapidetu ahal da.

Arabako Foru Aldundiak eskumena du proiektuaren obra publikoaren proiektua egin eta gauzatzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36. artikuluan eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.1 eta 6.e) artikuluetan jasotakoaren arabera. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legeak 2.1 artikuluan.

Proiektuek berekin dakartenean onura publikoaren aitorpena egin beharra desjabetzeak gauzatzeko eta desjabetzeek eragindako eskubide eta ondasunen behin betiko zerrendak egiteko, erakunde honen barnean, Foru Gobernu Kontseilua da proiektuak onesteko eskumena duen organoa, hala xedatzen baitute Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.1.c).7 artikulua eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak eta Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Erantzutea "Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektua eguneratzeko proiektua" jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioei, eta alegaziook baiestea edo ezestea, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak jakinarazitakoaren arabera.

Bigarrena. Onestea "Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektua eguneratzeko proiektuaren" eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda. Zerrenda hori honekin batera dagoen eranskinean dago.

Hirugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra aitortzea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo amaitzeko.

Laugarrena. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan araututako presako prozeduraz izapidetzea desjabetze espedientea.

Bosgarrena. 23.921,38 euroko kreditu atxikipena egitea, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko aurrekontuko "50106. G/453501/600005000 Desjabetze hidraulikoak" partidaren kontura, 2024ko multzoan, eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagoen balio justuaren zenbatekoa ordain dezala, Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epeetan.

Zazpigarrena. Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko titularrari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoko 2023rako Aurrekontua Betearazteko abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauaren 15. artikulua.

Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Lantarongo Udaletzeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 15a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*  
**MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA**



Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila  
 Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias

PROIEKTUA / PROYECTO  
**Sobrongo zundaketako homidura hoditeria berritzea proiektuaren eguneratzea**  
 Actualización del proyecto de renovación de conducción de abastecimiento sondeo Sobrón  
 Udal mugartea / Término municipal: Lantarón

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA m <sup>2</sup>		EGUNA	ORDUA	Esp./Expte. 2023/5
		POLIGONOA	LURSAILA			BEHIN-BETIKOA	ZORTASUNA Homidura zortasuna 3m (1,20*)			
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES		APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	SUPERFICIE AFECTADA m <sup>2</sup>		DÍA	HORA	
		POLIGONO	PARCELA			DEFINITIVA	TEMPORAL			
1/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE SOBRON	1	810 A	Mendia B / Monte B	Likido Bitlegia / Depósito Líquido	747	72	0	30/11/2023	10:00
2/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE SOBRON	1	810 D	Ez-emankor / Improductivo		26	0	0	30/11/2023	10:00
4/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE SOBRON	1	813	Mendia / Monte		2.521	2.643	0	30/11/2023	10:00
5/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE SOBRON	1	804	Mendia B / Monte B		2.547	4.381	216	30/11/2023	10:00
6/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE SOBRON	1	818 A	Mendia B / Monte B		123	168	0	30/11/2023	10:00
7/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE SOBRON	1	816	Mendia B / Monte B		0	156	0	30/11/2023	10:00
11/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE SOBRON	1	817	Mendia B / Monte B		128	680	44	30/11/2023	10:00
9/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE SOBRON	1	23 B	Mendia B / Monte B		6	614	114	30/11/2023	10:00
10/000	AYUNTAMIENTO DE LANTARON	1	19	Aparkalekua / Aparcamiento		0	216	0	30/11/2023	12:30
12/000	AYUNTAMIENTO DE LANTARON	1	971	Mendia B / Monte B		6	1.931	693	30/11/2023	12:30
13/000	AYUNTAMIENTO DE LANTARON	1	786 A	Mendia B / Monte B		0	949	329	30/11/2023	12:30
15/000	AYUNTAMIENTO DE LANTARON	1	475	Mendia B / Monte B		0	1.196	207	30/11/2023	12:30
15/000	AYUNTAMIENTO DE LANTARON	1	464	Ez-emankor / Improductivo Mendia B / Monte B		0	218	137	30/11/2023	12:30
						0	350	0		

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK			ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA m <sup>2</sup>				EGUNA	ORDUA	
		POLIGONOA	LURSAILA	PARCELA		APROBETXAMENDUA	BIEN AFECTADO	BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA			ZORTASUNA
												SUPERFICIE AFECTADA m <sup>2</sup>
Nº FINCA	TITULAR				APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE Acueducto de abastecimiento 3 m (1,20*)	DÍA	HORA	
8/000	TOLOSA RUIZ DE AZUA, ISIDRA ORTIZ BARRON, ANGEL ORTIZ TOLOSA, ESTHER ORTIZ TOLOSA, JESUSA ORTIZ TOLOSA, MARTIN ORTIZ TOLOSA, MANGELES	1	844		Larrea / Pastizal		0	48	13	01/12/2023	10:00	
14/000	PASCUAL SILVA, JESÚS PEREZ CASTAÑO, MARTA PASCUAL PEREZ, J.MIGUEL ECHEGUREN CONDE, MARIA BEGOÑA AGUINACO GONZALEZ DE DURANA, ALBERTO PASCUAL PEREZ, MARTA	1	968 C		Mendia B / Monte B		0	251	38	01/12/2023	11:00	
3/000	IBERDROLA S.A.	1	921		Ez-emankor / Inproductivo Mendia B / Monte B		0	1206 1195	413 295	01/12/2023	12:30	

\* 1,20 m-ra murriztu da erorbideak A-2122 errepedeati eragiten dion larrean  
Se ha reducido a 1,20m donde la conducción afecta a la ctra A-2122